

Nire ohola / *My dashboard*

Ohola beste eTwinner batzuekin hartu-eman zuzena izateko espazioa da. Bertan, gure informazio eguneratua erakutsi edo beste kontaktu batzuenak ikusi eta komentatuko dugu: gomendioak, eTwinning-eko beste jarduerak batzuk, proiektuen iradokizunak, baliabide interesgarriak...

Garrantzitsua da zure argitalpenek informazio espezifikoa eta erabilgarria ematea, beste eTwinner batzuek zure interesak gehiago ezagutzeko aukera izan dezaten.

Proiektuaren ideia

Ba al dakigu zer egin nahi dugun hurrengo proiektuan? Ohola leku egokia da publiko egiteko.

Garrantzitsua da argitalpena zehatza izatea. Proiektuaren hainbat alderdiri buruzko informazioa eman dezakegu: gaia, irakasgaiak, metodologiak, ikasleen adina, kiten bat erabili nahi ote genukeen... Gogoratu zure ohola eguneratuta edukitzeaz, unean uneko lehentasunen arabera. Komenigarria da gure proiektuan erabili nahi ditugun hizkuntzetan argitaratzea. Ideia hori beste eTwinner batzuentzat publikoa izango da, *Partner Finding* / Kideen bilatzailea ataletik, *Networking* / Sare profesionalak erlaitzean.

Ez ahaztu helburu nagusiak, esploratu nahi dituzun metodologiak edo antzeko proiektuen erreferentziak aipatzea.

Nola sartu?

Eskuineko goiko zabalgarritik, sartu **“My Dashboard”** atalean. Hortik zure argitalpenak kontsultatu edo berri bat gehitu ahal izango duzu. Gogoratu beti aldaketak gorde behar dituzula itxi aurretik.

